

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen eta bizikleten aseguru



Seguro vehículos de movilidad personal y Bicicletas

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

SEGUROS LAGUN ARO SA, Espainian erregistratutako aseguru-entitatea (C-0572)

Dokumentu honek aseguruaren alderdi nagusiak laburbiltzen ditu; beraz, ez du informazio osoa biltzen.

Informazio osoa aseguru-proiektuan eta kontratuaren Baldintza Partikularretan eta Orokorretan dago jasota.

Zertan datza aseguru-mota hau?

Polizaren Baldintza Partikularretan kontratatutako bermeen arabera, mugikortasun-ibilgailuaren edo bizikletaren/bizikleta elektrikoaren erabileratik eta jabetzatik eratorritako estaldurak estaliko dira, baldin eta horiek 25 km/h-ra iristean edo txirrindulariak pedalei eragiteari uztean eten egiten den pedalei laguntzeko sistema badute. Aseguruaren estalduraren eremuan, honako hauek sartzen dira: hirugarrenei eragindako kalteak eta Aseguruaren interesen gaineko defentsa juridikoa, gidariaren gaineko kalte pertsonalak, gidariaren eta ibilgailuaren bidaiako laguntza, eta aseguruaren xede den ibilgailuak izan ditzakeen istripuzko kalteak edo lapurretak.



Zer aseguratzen da?

Erantzukizun zibila:

✓ Erantzukizun zibila (500.000 euro).

Hiri barruko edo mendiko bideetan zirkulatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte material edo pertsonalak.

✓ Defentsa juridikoa eta kalteen erreklamazioa:

Istripu batetik eratorritako prozedura judicial eta/edo administratiboetako laguntza- eta defentsa-gastuak bermatzen dira, baita prozesutik eratorritako profesionalen kostuak ere.

Aukerako estaldurak:

- **Istripu pertsonalak eta Eguneroko bizitzarako laguntza:** Istripu batetik eratorritako gorputz-lesioak barne hartzen ditu, heriotza edo ezintasun iraunkorra eragiten dutenean, baita Aseguruaren eguneroko bizitzarako laguntza-zerbitzua ere.

- **Bidaiako laguntza:** Ibilgailuarentzako eta Aseguruarentzako laguntza, bermeak aurreikusitako ezustekoen aurrean, sarbidea dagoenean bide ibilgarrietan.

- **Lapurreta:** Ibilgailu aseguruaren lapurreta-kasuetan (gauzen gaineko indarkeria) birjartzea edo kalte-ordaina ematea, betiere horretarako ezarritako gutxieneko segurtasun-baldintzak betetzen baditu.

- **Istripuzko kalteak:** Aseguratutako ibilgailuaren gain, kanpoko, bat-bateko eta ustekabeko osagaia duen istripu batetik eratorria.



Zer ez da aseguratzen?

Honako arrazoi hauek tarteko sortutako edo eragindako kalte-galerak:

✗ Aseguruaren fede gaiztoa, doloa edo erru larria.

✗ Ibilgailuaren jabetzatik edo zirkulaziotik eratorritako isunak edo zehapenak.

✗ Aseguratutako ondasunen espolioazioa eta ebasketak edo galera soilak.

✗ Ibilgailuan garraiatzen diren ondasunen gaineko galerak/kalteak.

✗ Kalte estetiko hutsak, hala nola marradurak, altxatuak edo pintura-falta, ibilgailua normaltasunez zirkulatzea eragozten ez dutenak.

✗ Poliza kontratatu aurreko kalteak.

✗ Ibilgailua kontserbazio- eta zirkulazio-egoera normalean egoteko behar-beharrezkoak diren konponketak ez egitea.

✗ Edozein jardura profesional egitean eta/edo salgaiak edo ondasunak banatzean sortutako kalteak edo ibilgailu profesionalak.



Murrizketarik ba al dago estaldurari dagokionez?

Kontratatzeko mugak:

! 16 urtetik beherako eta 75 urtetik gorako aseguruak.

! Istripuzko kalteen eta/edo Lapurretaren bermearako, 400 eurotik beherako eta 8.000 eurotik gorako balioa duten ibilgailuak.

! Istripuzko kalteak: Gehienez 2 ezbehar urteko.

- Aseguruaren kargurako frankizia ezbeharraren zenbatekoaren % 20koa; gutxienez 150 euro.

! Lapurreta: Gehienez 2 ezbehar urteko.

- Aseguruaren kargurako frankizia ezbeharraren zenbatekoaren % 20koa; gutxienez 150 euro.

Muga nagusiak honako hauek dira:

! Erantzukizun zibila: Estaldura-muga: 500.000 €.

! Defentsa juridikoa eta kalteen erreklamazioa: 3.000 € (Aseguru-etxeak esleitutako profesionalak onartzen ez badira).
Auzitara joateko gutxienekoa: 150 euro.

! Gidariari istripuak:

- Heriotzagatiko muga: 10.000 €
- Ezintasun iraunkorragatiko muga: 10.000 €
- Osasun-laguntzako muga: 2.000 €

! Bidaiako laguntza:

Zerbitzu hau emateko, ezinbestekoa izango da automobilentzako bide ibilgarrietan sartu ahal izatea.

Aseguru-etxeak bere gain hartuko ditu ibilgailua eta Aseguratua bere bizilekuraino, 100 km-ko erradioko mugarekin eta 200 euroko gehieneko kostuarekin.

- 10 eguneko muga, gehienez 80 euro eguneko, Aseguratuaren etxebizitzara itzultzeko ezintasuna izanez gero.



Non nago estalita?

✓ Bidaiako laguntza: Berme honetako prestazioak Espainia osoan dira aplikagarri, frankizia kilometrikorik gabe. Salbuetsita gelditzen da mediku-gastuen ordainketa atzerrian, Europar Batasuneko herrialdeetan, Suitzan, Gibraltarren, Andorran eta Monakon.

✓ Erantzukizun zibila: Espainiako lurraldean gertatutako eta eragindako kalteak. Aseguratuak noizbehinka atzerrira joan-etorriak eginez gero (gehienez ere 3 hilabetekoak), estaldurak mundu osoa hartuko du, Ameriketako Estatu Batuak, Kanada eta Mexiko izan ezik.



Zein dira nire betebeharrak?

- Aseguruaren urteko prezioa kontratuan ezarritako baldintzetan ordaintzea.
- Kontratua formalizatu aurretik eta haren indarraldian, arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen inguruabar guztien berri ematea Seguros Lagun Arori.
- Istripua izan dela jakin eta gehienez ere zazpi eguneko epean horren berri ematea.
- Gorabeheraren ondorioak arintzeko, erabilgarri dauden baliabideak erabiltzea.
- Asegurua ezingo da izan Aseguratua bidegabe aberasteko bitartekoa.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Kontratua formalizatzeko unean eta kontratua urtero berritzeko datan egin behar da ordainketa. Baldintza Partikularretan jasotakoaren arabera egin beharko da ordainketa, bankuan helbideratuz edota zenbatekoa bitartekariari entregatuz.



Noiz hasten eta amaitzen da estaldura?

Baldintza Partikularretan adierazitako egunean eta orduan hasiko eta amaituko da aseguru. Ondoz ondoko berritzeen ondoren, ordaindu den aseguru-aldia bukatzen den egunean eta orduan amaituko da.



Nola hutsaldu dezaket kontratua?

Indarrean dagoen aseguru-aldia bukatu baino gutxienez hilabete lehenago jakinarazpen idatzia bidaliz.